

...eta

Kittó!

863 zkia.
2013-X-18



Udazken-negu MUSIKALA



P.S. Nº 148/10 L.G.

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • OPIJIZIA • TOLOSA

ZURE BIGARREN

VARILUX®
LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI*

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren exaugarriak.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan



RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

- **Irribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Aseguruekin
IMO, ADESLAS, SANTA LUCIA,
FRATERNIDAD...
egiten dugu lan
KONTSULTATU!

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: **08.00-22.00** / Larunbatetan: **10.00-14.00**

**URRIAN, ZURE EROSKETEKIN,
ZOSKETA HANDIAK**

MERKATU PLAZAN

**URRIAK 19: BI LAGUNENDAKO SPA
ZIRKUITUA DEBAKO KRESALA HOTELEAN**

**URRIAK 26: OTARRA MERKATU PLAZAKO
PRODUKTUEKIN**

EIBARKO UDALA

EIBAR
CENTRO COMERCIAL AIRIFITO
MERKATUAZTA GIUNE IREKIA

ASTEAN ESANAK

"Audientzia eta errentagarritasuna lortzeko sortu zuten ETB2. Ondorioz, ETB1 ahatetxo itsusia bihurtu da. Telebista kultura da, gainera, porrotik handiena. Ondorio kaltegarriak saihestearren, hobe ikus-entzunezkoak Internet bidez kontsumitzea"

(AXIER LOPEZ, ARGIAKO KAZETARIA)

"Orain dela urte batzuk, praktikan ETAK armak uzteko bidean zegoanean, 80ko hamarkadako ETaren irudi bortitza bereganatu zuten Hollywoodeko film eta telesailetan. Eta orain 30 urte, aldiz, ETaren urterik gogorrenetan, erromantizismo kutsua zuten filme haiek"

(OSCAR ALVAREZ, HISTORIALARIA)

"Autodeterminazio indarrak biltzen diren artean, ez dakit ez ote genuen egokiago estrategiaz aldatzea eta, *Vasconia Españolísima* modura, aurreneko eta benetako espainolak geu gabela aldarrikatzea. Gero, inor konturatu orduko, nahi ez ditugunak kanporatzeko *Kantabriyako partetik*"

(IÑIGO ARANBARRI, IDAZLEA)

"Sasoi batean jaten genuen modura bueltatzea izan daiteke minbiziaren gaur egungo martxari aurre egiteko modurik eraginkorrena. Tumoreen %85 gure bizitza-moduarekin dago lotuta; genetikak %15ean du eragina"

(JESUS M. BAÑALES, IKERTZAILEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

JOKATU.-Joko batean jardun: kartetan, pelotan. "Nola konpondu haiz azkenera arte hutsik egin barik jokatzeko?". Posturak egin, dirua jokatu. "Neure diru guztiok heure alde jokatu jittuat". Jardun. 'Actuar, comportarse'. "Zure bezeruekin beti holan jokatzen badozu, laster geldittuko zara eurak barik".

JOKO.-Apostua, trabesa. "Jokua ez da errenta, hobe oillua erreta". Lehia, kirola. "Joko gehixenetan ha beti aurrenengo". Karta-joko. "Bai! eta bixar jokora doia; arratsalde guztian hantxe, iñuzentia moruan!".

eskutitzak

GAZTETXIA BIZIKIDETZA ON BATEN ALDE

Azkenaldian gatzetxian aurrera eraman diren ekin-tzen inguruko kekak egon direla jakinarazi digute. Hori dela eta, zuekin biltzea gustatuko litzaiguke denon artean adostasun batera iritsi eta bizikidetza on bat edukitzeko.

Horretarako bilera batera gonbidatzen zaituztegu **urriaren 22an, martitzena, 20.00etan Karmeliten aurreko plazan.**

Bertan ikusiko garelakoan.

EIBARKO GAZTETXIA

EIBARKO EAJ-PNV: ELKARTASUNA NEREA ZAMAKOLARI

Aurreko astean "baten batek" paper batzuk buzo-neatu zituen egoera bat salatzeo, baina Eibarko bizilagun bat -Nerea Zamakola, hain zuzen- nabarmen lagata. Haren argazkiarekin batera, bere e-maila, telefonoa eta helbidea agertzen ziren.

Gezurra dirudi sasoi hauetan oraindik jendea ego-tea horrelako metodoak erabiltzen euren lan-egoera edo beste edozer salatzeo. Gure ikuspuntutik, gure bizilagun hau modu horretan jazartzen dutenek arrazoi guztia galtzen dute eta euren salaketak indarra

galtzen du mehatxu gordin erako metodoak erabiltzerakoan.

Nerea bezalakoek ere familia dutelako: gurasoak, seme-alabak, neba-ahizpak... Pentsatzen dugu inork ez lukeela nahi berak jasaten diharduena jasatea. Gauzak egin aurretik horren ondorioak neurtu behar direlako. EAJ-PNVtik, Nerearekin solidarizatzear gain, iragana gogoratzen dizkiguten portaera anker horiek salatu nahi ditugu, berriro ez gertatzeko itxaropenarekin.

EIBARKO EAJ-PNV

HERRIRA AURRERA!

Estatu Espainolaren oinarritzko eskubideen zapal-kuntza sistematikoaren azkenengo urratsak berriro ere bere gabezi demokratikoa erakusten duelako, ni ere **Herrira** naiz.

URTZI ABANZABALEGI (ERRUGBILARIA)

Sentimentuak, herriarekiko zein herritarrekiko sentipenak eta preso zein iheslariarekiko maitasuna ezin direlako gartzelaratu, gu ere **Herrira** gara.

SU TA GAR

Ni ere preso naiz, ni ere iheslaria naiz, ni ere senide naiz, ni ere laguna naiz, ni ere torturatua naiz, ni ere askatasuna naiz, ni ere ez naiz hemengoa, ni ere **Herrira** naiz.

JOSU GIL (NEKAZARIA)

Maltzurkeria ala elkartasuna aukeratzekoan zailtzarik ez daukadalako, ni ere **Herrira** naiz.

ENRIKE GISASOLA (BASERRITARRA)



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEREA: ...eta kito! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONORAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEREA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBUZITATERA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Launderettes
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
("...eta kito!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria**

Cornagori omenaldixa Gure Balioak Sarixetan

Gizarte balorietan nabarmendu dan batenbaten biharra aitorzeko asmua dakan Gure Balioak Sarixa datorren asteko eguaztenian banatuko dabe Deban, Agirre Jauregixan, 18.30xetik aurrera. Debegesak sustatutako sarixak Debako Udalaren eta DanobatGroup-en laguntza jaso dau laugarren ediziñuan eta sariduna zein

dan ekitaldixan bertan emongo dabe aditzera. Nahi dabenak ekitaldira juateko aukeria eukiko dau, alde aurretik izena emonda (943820110 telefonuan, Silvia Gil edo balioak@debegesa.com helbidera idatzitta). Ekitaldixan iaz hil zan Txema Cornagori omenaldixa egingo detse, Antzerki Jardunaldixen antolatzaillia

Gure Balioak ekimeneko ki-dia zan-eta. Bestalde, Jon Leonardo Aurtenetxe Deustuko Unibersitateko Soziologia katedradunak hitzaldixa emongo dau "Balioak: Krisiari aurre egiteko baliabideak" (18.45-etan) eta Teresa Albero sopranauren kantaldixarekin agurtuko dabe ekitaldixa (19.30xetan).



Esperientzia Eskolako 10. promoziñua martxan

Debabarreneko Esperientzia Eskolakuak gaur goizian ekin detse ikasturte barrixari. Uda osua eskolarendako dirua batzen emon eta gero, azkenian posible izango dabe ohiko jarduerarekin segitzia eta gaurtik bertatik hasitta hamargarren promoziñua dago martxan.

Gaztien aldeko alkarretaratzia

Astelehenian alkarretaratzia egiñ eben Untzagan, 26/11 sumari-xuan auzipetutako 40 gaztien epaiaketarengaittik protestatzeko. Bestalde, epaiaketaren inguruko manifestaziño nazionala deittu dabe urrixaren 26rako, Bilbon, eta Eibartik antolatu daben autobusian juan nahi dabenak Karrika, Depor, Buenos Aires edo Hirurok tabernetan emon biharko dau izena.



Urkikuen marmittakua txapeldun

Urkiko jubilau etxeko ordezkariak irabazi dabe urtero egitten dan Gipuzkoako Jubilau Etxien arteko marmittako txapelketia. Petra Anton eta Milagros Torroba eibartarrak Donostiako Alzatarrak alkartian prestatu eben marmittakua onena zala erabagi eban Xabier Anatolek, Arturo Mancebok, Raul Sanchezek eta Txema Odriozolak osatutako epaimahaixak. Finalian zazpi bikote lehiatu dira, bat eskualde bakotxeko.



Benicobarekin saskibaloia ikustera

Gipuzkoa Basket taldiak Donostian jokutzen dittuan partiduak ikustera juateko sarre-rak zozketatu dittue Benicoba elekradendan eta, horri esker, Francisco Gonzalez, Eli Urdanpilleta eta Lurdes Urruriagak (argazkixan) biña sarrera jaso dittue. Aurrerantzian be zozketa gehixago egitteko asmua dake.



1963an jaixotakuak edarto ibilli ziran

Aurreko zapatuan ospatu eben euren jaixa 1963an jaixotakuak. Eguardixan alkartu eta Marina Barrenak egindako zapixak eta oroigarrixak banatuta, trikitilarixak lagunduta luntxa egiñ eben eta, jarraixan, Txaltxa Zelaixan erretratua etara eben. Unzaga hotelian bapo bazkaldu eta gero, illuntzian pintxo-potiarekin segidu eben eta, animauenak, Punto y Aparten egindako jaialdixarekin agurtu eben eguna.

Gaur gabian dendak zabalik

Eibarko 70 denda eta tabernak hartuko dabe parte gaur lehengoaz egingo dan Shopping Night (Erosketa Gaba) dalakuan. Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatuta, 30 bat denda (Burbujas y más, K-moda, Lahidalga, Doroti, Guby Mujer, Katetxo, Pissa, Distrito 21, Gozoki, Itxesi, Valenciaga, Gratzina, Mabe, Guby, Quetzal, Jerónimo, Ikusimakusi, Benetton, Lide, Ttiki, Xare, Cedry, Igmarr, Nona, Marrodán, X-trem, Tribeka, Leder, Vieco, De Capricho eta El Corte Inglés) 21.00etatik 23.00etara zabalduko dittue. Ekimenarekin bat egin daben dendak alfonbra gorrixa ipiñiko dabe eta, gaiñera, bezerueri mokadutxua eskinduko detse eta erosketa-txartelak zozketatuko dittue. El Corte Inglesak Toribio Etxebarriako dendan dantza ikuskizuna an-



Lekeittioko Deabruak taldiak kale-antzerkixa eta piroteknia ikuskizuna eskinduko dau.

tolatu dau, erosketa-txartelak eta deskontubaliak zozketatuko dittu, photocall-a egingo da eta txanpain kopia emongo detse bezerueri. Globuekin apaindutako 40 tabernatan kanapeak emongo dittue. Eta kaliak girotzeke, Lekeittioko Deabruak taldiak kale-antzerkixa eta piroteknia batzen dittuan ikuskizuna eskinduko dau eta elektrotzaranga bat kalejiran ibilliko da.

autuan

AZKEN OSTIRALA

Oztopuak oztopo, euskal preso eta iheslari politikuen eskubidien aldeko hilleroko ekitaldixekin segiduko dabela emon dabe aditzera Eibar Tantz Tanta taldekuak eta, betiko lez, Azken Ostirala hillaren 25ian izango da, 19.30xetan Untzagan.



1937-XAN JAIXOTAKUAK

Urte horretan jaixotakuak azaruaren 15ian ospatuko dabe euren jaixa. Bazkarixa Unzaga Plaza hotelian izango da eta juan nahi dabenak 55 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 209550350091 13208258 kontu korronte zenbakixan, izen-abizenak argi azalduta.

SAN ANDRES AZOKA

Aurtengo San Andres azokan parte hartu nahi dabenak azaruaren 8ra arte eukiko dau izena emoteko aukeria. Informaziño gehixago nahi dabenak edo izena emoteko Pegorara juan biharko da.

Bixar bigarren eskuko azokia Estaziñuan

Bixar zapatua Geltoki Market bigarren eskuko azokia ipiñiko dabe Estaziñuan Zona 10 alkartekuak. 10.30xetatik aurrera eta 15.30xak arte bertako postuetan salgai daguzenak erosteko aukeria eukiko dau jendiak eta, betiko lez, azokia martxan dagan bittartian jarduera osagarrixak egingo dittue Estaziño kalia eta inguruan. Bestiak beste, Bittor Sarasketa kalia dagan Itzama akademixan kalabaza taillarra egingo dabe, laster izango dan Halloween jaixaren harira. Taillarra 11.30xetatik 13.00ak bittartian egingo da martxan eta parte hartzen dabenak 15 euro pagau biharko dabe (kalabaza barne).

2.000 euroko otarra zozketatuko dau ...eta kitto!-k

Eguaztenian aurkeztu eben ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Eibarko El Corte Inglesaren laguntasunarekin zozketatuko daben Gabonetako otarra. Koldo Mitxelena euskera alkar-teko koordinatzailliak azaldu ebanez, "urtietan loterixia saldu dogu, baiña aurten, horren orde, 2.000 euro balixo daben produktuekin osatutako otar ikusgarria zozketatzeko txartelak salduko dittugu". Txartel bakoetak euria balixo dau eta ohiko tokixetan salduko dittue: Isasi okindegixan, Ogi Berri-Urkizun, Bolintxon, Untzaga prentsan, Etxeto-Urkizun, Kultun, Deporren, Ego Gain tabernan, Valenciagan, Mugika harategixan, Otegui harategixan, Izadi loradendan... Horrez gairi, ...eta kitto!-ren buleguan (Urki-zu, 11 solairuarteran) eta El Corte Inglesian be salduko dittue. Eta bixar hasitta, zapatuero ...eta kitto!-ko bihargiñak T. Etxebarriako El Corte Ingles parian saltzen egongo dira, 12.00xetatik 13.30etara. Azaruan otarra ikusteko moduan ipiñiko

dabe eta zozketia abenduaren 18xan egingo dabe.

Joana Fernandez alkarlanarekin pozik dago: "...eta kitto!-k lan haundixa egitten dau aste-ro aldizkarixarekin eta baita gizarterako beste proiektu batzurrekin be. Eibarko parte garrantzitsua da eta, El Corte Inglesa be Eibarko parte bat dan alde-tik, pozik lagundu dogu". Mitxelenak azpimarratu dabenez, "urtian zihar hamaika jarduera antolatzen ditu ...eta kitto!-k eta askok diru-sarrerarik ez emotiaz gain, gastua eragitten dabe. Holakuak eskintzen segidu ahal izateko antolatzen dittugu holakuak". Bestalde, ...eta kitto!-ko bazkide guztieri dei berezixa egin detse, "bole-tuak saltzen laguntzera animatzeko". Nahi dabenak buleguan edo 943200918 telefono zenbakira deittuta eskatu leike takua.

Otarra "supermerkatuko bihargiñak kalidade haundiko produktuekin" osatu dabe: 40 hazbeteko 'OKI' telebista, 'Micsa' ezkur-urdaiazpikoa, Solomo trufatua, 'Don Bernardo Oro'



Joana Fernandez eta Koldo Mitxelena aurkezpenian. SILBIA HERNANDEZ

gaztaia, Salamankako ezkur-txorizo, Salamankako ezkur-saltxitoxioa, Ahate 'Delicass' foie-a, 'Martiko' Confit ahate-izterra, 'Sierra Monesterio' ezkur-solomo zorroak, Ahate jamoia, 'Julian Martin' askotariko iberikoa, 'Vasco Navarra' ardi gazta, 'Sierra Monesterio' ezkur-jamoi zorroak, Micuit 'Rougie' Gourmet, 'Dos Cafeteras' gozokiak, 185 gramoko Chatka lata, Pikillo piper saltsa 278 ml, 'El Barco' txokolatea, 'El Barco' txokolate zuria, Madari osoa ardotan, '1880' txokolate-almendra turroia, 'La Higuera' piku bonboia, 'Gorrotxategi' teilak, 'C. Gourmet' turroi gogorra, 'C. Gourmet' turroi biguna, 'C. Gourmet' trufa-turroia, 'Soles de Gredos' hojal-dretxoak, 'Gyulian' itsas fruituak, 'Cascajares' esne-bildots hanka,

Gin Tonic-erako espezia kit estutxea, Champagne 'Bruno Paillard', Champagne 'Rosse Ruinart', Champagne 'Moet Chandon' estutxea, Eskoziako 'Chivas Regal' whisky-a, 'Matusalem' rona (23 botila), 'Plymouth' Ginebra, 'Qtonic' 4 tonikako Paka, 'Conde Osborne' Coignac-a, 'Level' Vodka, 'Marques de Riscal' 150 Aniversario ardo beltza, 'Albariño Martin Codax' ardo zuria, 'Julian Chivite 150 aniversario' ardo gorria, 'Gourmet Blancos D.O.' zainzuriak, 'D.O. Gourmet Frasco' piperrak, 'D.O. Catedral Frasco' alkatxofak, 'Thes D origin Le Palais' estutxea, Jamaicako kafea, 'Elfos' trufa zuri olioia, 'Elfos' trufa beltz olioia, 'Gourmandises' kokoak, 'L'Himalayen' gatz larrosa, 2 'Ibardin' confit eta 2 'Lafitte' confit.



Jorge Imaz Bolinaga

Komunitateen Administrazioa

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.

Tlf. 943 53 03 03

imazjorge@hotmail.com

GIDA PRESTATZEN DIHARDUGU...

Agertuko zara, ezta?

eibar GIDA 2014

DEITU...

943 20 67 76

943 20 09 18



Atzo zen egotekoa Portalean. Zuzenbidea ikasitakoa da Jose Mari Erasquin eta farmazilaria Hondarribian. Etxe-husteen drama sozialak hunkituta, Kaleratzeak Stop plataformarekin hasi zen lanean eta HMEI indizeak sortzen dabilen arazoez dihardu hitzaldiak ematen azken aldian. Indize erreferentzia horrekin daude eginda %10 eta 15en arteko hipoteka-maileguak estatuan eta azaroaren 1ean desagertu beharko da, Europak orain dela bi urte emandako aginduari jarraituta. Euribor + bat indizea erabiliko da hortik aurrera eta izango dira hilero 500 euro aurreratuko dutenak. Dena dela, Erasquin kezati da kutxek egiten jarraitzen dituzten gehiegikeriekin.

JOSE MARI ERAUSKIN (Kaleratzeak Stop)

“Bankuen jokaera ankerra salatzen jarraituko dugu”

- Zer gustatuko litzaizuke argi lagatzea Eibarren eman behar duzun hitzaldian?

Hipoteka Maileguen Erreferentzia Indizea (HMEI) guztiz manipulagarria dela, zergatik erabiltzen den filosofiatik hasita. Bizi dugun momentua aztertuko dugu, banketxeek neurririk gabe zelan jokatzen duten eta epaileek zer dioten horren inguruan. Berez MHEI onartu ezin den neurria da, Luxenburgotik argi adierazi dutenez. Zergatik? Kapritxo hutsa delako. Indize hori kutxek kobratzen duten interes tipoen batezbestekoaren arabera da, hau da, bezeroa euren menpe dago. Euriborra, aldiz, ezin du ez bezeroak ez kutxak manipulatu: horregatik da zuzenagoa. Baina zer gertatu da? Erabakia hartu zenetik bi urte pasatu direla dagoeneko: familia bakoitzak %4 ordaintzen %1'5 ordaindu behar zuenean, 300-400 euroko aldea hilero.

- Azaroaren 1etik aurrera MHEI ez da indarrean egongo. Baina kalkulu berriak noiz hasiko dira egiten?

Legeak esaten du egun horretatik aurrera egin behar direla kalkuluak eta ez, kutxek eta bankuen nahi duten moduan, kalkuluak errebisatzea tokatzen denean, horrek kasu batzuetan beste urtebeko zigorra ekarri dezakeelako. Hor egongo da borroka oraindik.

- Gobiernuak ez du presa handirik Europatik etorritakoa indarrean jartzeko...

Hori baino gehiago egin du, paktu pribatu baten erdian sartu baita, hirugarren bat kaltetuz. Horrek kontratuen segurtasun juridikoa pikutara bidaltzen du. Horren parekoa izango litzateke gu bion artean bata besteari motorra saltzeko akordiora iritsi eta alkateak prezio hori ez dela logikoa esanda hori baliorik gabe lagatzea.

- Zer egin behar duzue horren aurrean?

Politikoak posizioa hartzera behartuko ditugu. EAJ-PNV eta PSE-EEko politikoei toki batean modu batera eta erabaki guneetan bestera jokatzen dutelako. Aldaketa hauek lortzeko proposamena egin zuen EAJ-k Zarautzen eta baita PSE-k Eusko Legebiltzarrean; baina gero, Kutxabank-eko Kontseiluetan, aurka bozkatzeko. Bildu da bakarra toki batean zein bestean gauza bera esaten duena. PP-k ere koherentziarekin jokatzen du: ez dago aldaketan alde.

Bigarren neurri moduan, horrelako kasuetan demandak jarriko ditugu kontratua ez betetzeagatik. Eta Euskadiko fiskalari parte hartzeko eskatuko diogu... Terrorismoaren kontra mugitzen da bakarrik! Honen ez du interes publikorik ala?

- Jendea gero eta prestatuago dago kutxei aurre egiteko?

Horrela lortu dugu lur-klausula baliogabetzea. Normala denez, Luxenburgo ezetz esan zion horri, Bartzelonako kasu bati erantzunez. Etxebizitzak hutsik eta

jendea etxebizitzik gabe: zer helduleku du horrek? Plataformak dira jendearen esku-bideen alde borrokatzen dutenak, alderdi politikoei paso egiten duten bitartean.

- Kutxek ezin dute bestela jokatu?

Lur-klausulak, preferenteak, subordinatuak... beti epaileetan eta beti galtzen: txarto dabiltzala jabetu beharko liriateke. Bezeroak ordaindu ezin duenean, epea luzatu eta interesa igotzen diote. Zelan? Gaurko ezin badute ordaindu? Ankerrak dira. Baina finantza entitate horiek siglak dira, pertsonak dira, identifikatzea merezi dutenak, ardura eurena delako.

- Epaileek zer jarrera dute?

Aldatzen joan dira. Azken 20 urteetan 400.000 desjabetze agindu dituzte, lege kontrakoak gehienak. Maiatzaren 15etik, Europatik etorri zen aginduari jarraituz, badute aukera euren desadostasuna erakusteko, baina kanpotik etorri da bultzada.

- Zer egin behar du mailegua ordaintzeko ematen ez dion batek?

Lehenbailehen Desjabetzea Stop-era jo, banketxearekin ordainketa modu bat adosteko. Zenbat eta beranduago, txarrago: aurre egin behar zaio lotsari! Jendea errudun sentitzen da, biktima besterik ez denean. Behin horretaz jabetuta, umilduta egon dena zeharo haserretzen da. Eta etorkizuna gure esku dago: banketxeak euren tokian kokatu behar ditugu!

Ika Mizka zirkuitua: geldiunea Eibarren

Gazteak gure hizkuntza erabil-
tzeak duen garrantziaz senti-
bilizatzen eta euskaraz bizi-
tzearen aldeko hautua indar-
tzeke asmoz, bigarren urtez
abiatu da "Ika Mizka. Eta hik,
nola bizi dunk euskara?" egi-
tasmoa, Gaztezulo eta Gipuz-

koako Foru Aldundiak EHU
eta MUREkin lankidetzan anto-
latuta. Proiektuak hainbat alor-
retako aurpegi ezagunak eta
gazteak mahai baten bueltan
bilduko ditu, euskaraz eta
euskara bizitzeko moduez
berba egin eta eztabaidatze-
ko. Aurreko edizioan ki-
rolariek, kazetariek, bert-
solariek, zinemagileek,
idazleek eta musikariek
hartu zuten parte, bakoit-
zak bere hausnarketa
eginda eta bigarren hon-
etan ere hori da asmoa:
*"Euskaldunok gure hiz-
kuntzari amas emateko
ahaleginean (edo ez) bi-
zi ditugun gorabeherak
mahaigaineratu eta jen-
de gehiagorekin konpar-
titzeko aukera izango da:
pozak, oztopoak, aurre-
rapausoak, aurpegi txar-*



Nerea Elustondo, Jon Maia eta Alaia Martin bertsolariak.

rrak, aldaketak, anektodak...".
Aurtengo edizioa zirkuitu mo-
dura planteatu dute eta ibilbi-
dean hiru geldiune egingo di-
tu: lehenengo saioa datorren
asteen, urriaren 24an Ordizian
(Mondragon Unibertsitatearen
Goierriko campusean) egingo
dute; bigarrena azaroaren
14an Eibarren (UPV/ EHUren
Industria Ingenieritza Tekniko-

ko Unibertsitate Eskolan); eta
hirugarrena abenduaren 3an,
Euskararen Nazioarteko Egu-
nean, Irunen (Mondragon Uni-
bertsitatearen Bidasoako cam-
pusean). Parte hartzeko inte-
resa duten gazteek [www.gazte-
tezulo.com](http://www.gazte-
tezulo.com) webgunean izena
eman dezakete, bertan aurki-
tuko duten koadroan datuak
idatzita.



La Sallekoak surfean jardun zuten Zarautzen

La Salle Azitaingo 4. DBHko ikasleak Zarautzen egon ziren orain dela egun batzuk, surf ikastaroan parte hartzen. Irakasleek esan dutenez, *"helburua, egun zoragarria pasatzearekin batera, ikas-
tetxean egin ezin diren jarduerak egitea ere bada"*. Surf ikastaro-
an hainbat azalpen eman zizkieten ikasleei: ohola nola erabili,
nola zaindu, kirol hori egiteko jantzi egokiak zeintzuk diren eta
olatu mota ezberdinen ingurukoak ikasi zituzten, besteak beste.
Hondarretan hainbat ariketa egiteko tartea ere hartu zuten eta,
horiek amaitu eta jarraian, ikasleak uretara sartu ziren ikasitako
guztia praktikan ipintzera.

Uni-ko ikasleak Izarra Centre-ra bisitan

Uni Eibar-Ermuan Enpresa Simulazioa moduloan diharduten ikas-
leak Ermuko Izarra Centren izan dira, sormena eta autoenplegua
sustatzera bideratutako jardunaldian parte hartzen. Gaur egun 25
urtetik beherako langabetu kopurua horren altua denez, enpre-
sa ideia egokiarekin norberak enpresa sortzeak beharrendu jardun
ahal izateko eskaintzen dituen aukeraz jabetzea da horrelakoen as-
moa. Izarra enpresa-zentruan eta bere eraikin teknologiko berrian
egindako bisitan, besteak beste, negozioak abiarazteko ideiak sor-
tzeke tailerrean parte hartu zuten eta, horrekin batera, norberak
enpresa sortzeko dauden laguntzen berri ere eman zieten.



Udazken negua musikaz beteta datorkigu eta, aurreko astian aurreratu genduan moduan, abendura bittartian orotariko kontzertuekin gozatzeko aukera paregabia eukiko dogu: aurreko barixakuan Pedro Palacinek zuzendutako Andres Egiguren orkestako gaztiak jardun eben eta domekan, urte osoko martxari jarraituta, Cielito Musika Bandakuen kontzertua hartu eban Coliseuak. Gaur, barriz, Usartza Txistulari Taldiak ganbara-kontzertu berezixa emongo dau, Elena Perez zuzendarixaren aginduetara. Eta datozen egunetan musika emanaldixak bata bestiarenekin atzetik etorriko dira: Patricia Kraus blues abeslarixa, Norvegiako The Launderettes taldea, organo kontzertu bi, Sostoa abesbatzak Verdi eskindutako emanaldixa, 45. Tolosako Abesbatza Lehiaketara juango diran lau talderen kontzertuak, Trio Medianoche... eta, zelan ez, Musika Bandaren eta Txistulari Taldiaren ohiko kontzertuak beteko dabe urte amaierara arteko musika arloko eskintza gurian.

Madrilgo Jorcam gazteen abesbatza.



MUSIKIAK lagundutako udazken-negua

Cielito Musika Bandak aurreko domekan emondako kontzertuan **Ustekabe** fanfarrekeru eskindutako "Euskal Jaia" potpourria estrenatu eben eta, horren aitzakixarekin, fanfarreko musikuak **Carlos Sanchez Barba** bandako zuzendarixari plaka oroigarria emonda azaldu zetsen euren esker ona: "Carlos San-

chez Barbak 11 urte daroiaz Ustekabe fanfariarendako kantuak moldatzen eta plaka oroigarria emonda, domekan estrenauzan kantuarengaittik eskerrak emotiarekin batera, azken 11 urtiotan egindako biharra be aitortu nahi izan detsa Ustekabek. Bandako zuzendarixak, zuzentzeko gaittasunaz gairi, abilezia berezixa dauka partitu-

rak egitteko eta hainbat konposiziño idatzi ditu, bestiak beste Ciudad de Eibar pasodoblia, Txirindularien Txirrina eta Ustekabe. Horrekin batera, Ustekaberendako dozenaka partitura eta potpourri egin ditu". Horrek eskertzeko plakia pozarren hartu eban bandako zuzendarixak aurreko domekan.

Txistua beste modu batian


Eta pozarren jardungo dabe gaurkuan txistularixak euredako benetan berezixa dan kontzertua eskintzen. Urtian behiñ emoten daben **Ganbarako Kontzertua** izango da gaurkua eta, Elena Perez zuzendarixaren berbetan, "joko dittugun piezak ezohiko laguntasuna eukiko dabe, Isabel Laspiurrek pianuarekin eta hari-laukotiak be jardungo dabelako. Kontzertua zati bittan banatuko da. Lehelengo zatixan txistuarekin batera pianuak be protagonismo haundixa eukiko dau eskinduko dittigun bost piezetan. Eta bigarren zatixan, barriz, txistuak eta harixak alkarrekin berbetan



KUP Taldea

jardungo dabe. Joko dittugun hiru piezen artian txistularixendako horren ezaguna dan Isidro Ansorenaren 'Birrigarroa' pieza txistulari bakarrak joko dau, hari-laukotiak lagunduta".

Gaurko programako pieza guztiak txisturako idatzitakuak izango dira, azkena izan ezik: "Harm Eversek idatzitako Happy Mallets kantuari Juanma Saezek egindako ber-siñua, marinbak lagundutakua, joko dogu. Edozelan be, gaur Coliseora datozenak txistua oso testuinguru ezohikuan topauko dabe eta behin baiño gehiago harrittu eta hunkittu be egingo dira, horregaittik jendia etortzera animau nahi dogu".



San Andres egunian Verdiri eskindutako emanaldixa emongo dabe Sostoa Abesbatzak eta Opera Divertimento-k alkarrekin.

Abesbatzak XXI. Musikaldixan

Bestalde, urrixaren 26xan XXI. Musikaldixa abiatuko da, Tolosako lehiaketa martxan da-guala aprobetxauta, Txekiako "Carmina" haurren abesbatzarekin. Karel Strgl-ek zuzenduta 32 neska eta lau mutillek osatutako abesbatza 1992xan sortu zan eta harrezkero 500 kontzertu baiña gehiago emon ditu. Carmina abesbatza sartu nahi daben 300 haur baiño gehiago dagoz musikia ikasten eta euretako batzuk haurtzaindegixan, lau urte besterik ez dakenian hasten dira. Arrakasta haundixa izan dau abesbatzak eta, bestiak beste, premixuak eskuratu dittue Lecceko Nazioarteko Lehiaketan (Italia, 1997) Tamperen (Finlandia, 1999) eta Tolosan bertan, 2000. urteko Abesbatza Lehiaketan.

Ana Gonzalezek zuzenduta, beste haur abesbatza bat entzuteko aukeria egongo da Madrilgo Jorcamaren kontzertuan. Madrilgo erkidegoko Abesbatza eta Gazte Orkestia instrumentista eta abeslari gaztiak goi maillako kalidade teknika eta artistikua jasotzeko aukeria eskintzeko asmoz sortu eben eta, proiektuari esker, gaztiak antzeppen, opera, ganbera kontzertu, ballet emanaldi eta beste askotan hartu dabe parte. Alemaniako Daarler Vocal



Ustekabe fanfarrekuak bandako zuzendarixari plakia emonda eskertu detse 11 urtiotako biharra.

Consort eta Euskadiko KUP Taldiak osatzen dabe abesbatzen aurtengo eskintza.

Eta berezixa izango da baitta **The Laundrettes** norvegiarren emanaldixa (dato- rren asteko barixakuan, 19.30xetan Portalean). Norvegiari eskindutako jardunaldi- xen testuinguruan antolatutako emanaldi- xan 60ko hamarkadan inspirautako neska taldiak "Getaway" disko barrixa presen- tauko dau gurian.

Verdiri eskindutako gala

Eta **Giuseppe Verdi** jaixo zala 200 urte betetzen dirala-eta, **Opera Divertimento** konpainiaki eta **Sostoa** abesbatzak alkarre- kin jardungo dabe San Andres egunian, Verdiri eskindutako emanaldi berezixan. Ordu eta erdixan, Verdiren musikia izango da protagonista eta abesti bakotxa koka- tzeko aurretik proiektiñua eskinduko da- be: ariak, duoak, terzetuak, abesbatzaren bakarkakuak... Denetarik izango da kon- zertuan eta jendiari ezagunak egingo ja- kozen "Il Trovatore", "Rigoletto", "La Tra- viata", "Macbteh" eta beste opera batzue- kin sekula ez bezala gozatzeko aukeria eu- kiko dogu.

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

PATRICIA KRAUS (abeslarixa)

"Oso kontzertu alaixa emoteko asmua dakat"

Datorren asteko eguean, urrixaren 24an 20.30xetan Coliseo antzokixan kontzertua eskinduko dau Patricia Krausek, pianuak lagunduta. Alfredo Kraus tenore haundixaren alabiak soul, blues eta jazz estilueri jarraituta bere bidia egittia lortu dau eta, gaur egunian, sail horretan estadu maillan onenetakua dala diñue kritikuak.

- Zelakua izango da emongo dozuen kontzertua?

Gherardo Catanzaro pianojole italiarrarekin batera jardungo dot, piano eta ahotsa batzen ditudan errezitala eskintzen. Oin dala urte bi eta erdi ekindako bidia jarraituta, honetan be "Retrocollection" eta "Vintage Fun Club" lanetako kanta abestuko ditudu, eta abenduan kaleratuko doten disko barriko kanta batzuk be eskintzeko asmua dakat. Izan be, ointxe bertan "Divas" lan barrixa amaitzen dihardugu, estudixuan nahasketak egitten harrapatu nauzue. Oso kontzertu alaixa izango da eta publikuarekin hartuemona eukitzeko asmua dakat, formato txixak horretarako aukeria emoten dau-eta.

- Disko barrixa amaitzen zabiz orduan. Zelakua izango da?

Aurreko lan bixeri jarraituko detsat honetan be, hasieratik triloxia egitteko asmua nekan-eta. Aurreko disko bixetatik kanpora geratu jatazen kanta batzuk sartzeko aprobetxau dot hirugarren diskua eta, erritmuari begira, aurreko bixetan baiño jazz, soul eta funky gehixago dago.

- Coliseuan eskinduko dozuenarekin urte bi eta erdi daroiazue ezzenatokixetan. Zelako harrera egin detsue?

Gaur egunian daguan egoeria zein dan kontuan hartzen badogu, ezin gara kejavu. Egixa da kultura munduan krisixaren eragiña nabarixa dala, baiña guk jende mordua euki dogu gure emanaldixetan, aretuak betetzen dihardugu, eta oso kritika onak euki ditudugu, askorendako zuzeneko onenetakua da guria.



- Jazzak, soulak eta funkyak jarraitzaille asko dittue?

Ba Espaiñian jende askori gustatzen jako holako musikia, baiña paradojikoki komunikabide haundixak ez detsa jaramonik egitten. Hori dala-eta, musika hori gustoko dakan jendiak sarritan atzerriko musikuen lanak konsumitzen dittu, ezagunak egitten jakuezelako. Horregaittik musika hori euren hizkuntzan eskintzen detsazunian eskertu egitten dabe. Eta neuri, abeslarixa naizen aldetik, modak-eta albo batera lagata artista moduan aurrera egitten eta garatzen segitzeko aukeria emoten detsa.

- Abizena zama haundixa izan da zuretako?

Hasieran, karrera hastian, denpora osuan arreta haundixarekin begiratzen detsuela sentitzen dozu, baiña urtiak aurrera egiñ ahala, neure bidia egittia lortu dot eta horrekin konturatzten dira. Aittari buruz berba egitten destenian harrotasuna sentitzen dot.

- Dana dala, aittak eragiña eukiko eban zeuk musikia aukeratzeko orduan...

Nere famelixia berez kanarrietan dakaz sustraixak eta han, Euskal Herrixan lez, famelixia eta lagunartian kantatzeko ohitura haundixa dago, bazkarixetan-eta. Nere famelixan betidanik asko bizi izan dogu musikia, nahiz eta aittaren atzetik, nere belaualdixan, musikia ogibidetzat aukeratu daben "zoro" bakarra neu izan.

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13

Orbeako dorreetako
1. solairua

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1 Kardiologia	11 Barne Medikuntza
2 Zirugia	12 Radiologia
3 Dermatologia	13 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	14 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	15 Koloproktologia
6 Ortodontzia	16 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	18 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	
10 Neurologia (BERRIA)	

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitalean hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko traslagoak

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

GREMIOEN

GIDA

ANTENAK

BALATZ c.s.
Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08
balatz@euskalnei.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

IÑAKI
Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak
Altzariak
Milaflores 10 Tfnua. 943 20 35 55

SUP SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ulmar
S.L.
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnua: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

943 530 356 **electricidad**
688 674 242 **alberto**
INSTALAZIOAK ETA
instalaciones y mantenimiento
MANTENIMENDUA
WWW.ELECTRICIDADALBERTO.COM
dasilvaalberto@hotmail.es

GURIA R
ELEKTRIZITATEA
Muntaia eta proiektu elektrikoak
Matsaria 2
7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95
Fax. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,
KONPONKETAK
ETA INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK
barra 677 51 24 62
943 20 06 97

Tel. 610 532 922
THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko urgentziak



Informazio gehiagorako



943 20 67 76



GARBIKETAK

 **TREJO**
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze
Garbiketa eta mantenimendua

IGELTSEROAK

CAMILO ALVAREZ IGELTSERITZA
- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.) OROKORREAN
- Gremioen koordinaketa
Jardiñeta, 25 - behea
620 060 104 (Ernesto) / 600 465 789 (Fran)


Jose Maria Irazabal, S.L.
ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA
eraikuntzak erreformak igeltseritza
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA


Gasa
Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia
Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929
Fontanería Jardines
Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

 **MUGICA**
ITURGINTZA
K21
AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...
HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA
Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

KRISTALAK


ACHA Kristaldegia
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com **ERAKUSKETA** Ari-
eta faxa: 943 203 903 kitxaneko Zubian

PINTURAK

 DECORACIONES
AIXA
José Luis Irionda
Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etixerakoak
Osagarriak
Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21
Tel/Fax: 943 20 19 22


PINTURAS ARRATE, S.L.
• Nexa Autocolor
• Pintura industrialia
• 3M produktuen banatzailea
MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89


MALVAR PINTURAS
Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...
Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

Etorkizun luzea izatea espero duen herri-proba

Hilaren 26an jokatuko den I. Asier Cuevas herri-lasterketak aurren hasi eta "urtez-urte hobetzen eta zabaltzen joateko" asmoa duela diote Klub Deportiboko eta Eibarko Triatloi Taldeko ordezkariak. Eurak izanda probaren antolatzaileak, "Udalaren laguntzarekin", herri-proba kutsuari eutsi nahi diote eta parte-hartze zabalena bilatuko: "Horregatik prestatu dugu 7 kilometroko ibilbidea, ahalik eta leunena. Kaleko giroak lagunduta, Eibarko korrikalarien jaia bihurtu nahi genuke", diote. Parte-hartzaile guztien artean opari txikiak zozketatuko dira: afariak, kirol materia-



la, jatekoak... Probaren izenerako Asier Cuevasen alde egin dute, "jakinda batek baino gehiagok egin dituela merituak hor agertzeko. Hala ere, bere ibilbidean emandako mailarekin batera, antxitxiketan egitea nahi duen edonorri laguntzeko beti prest egoteak animatu gaitu bere alde egiteko". Gure herrian aurretik ere izan dira herri-lasterketak: "Donostiako lehen maratoiaren ondoren hasi ziren antolatzen, Marcial del Amo eta bere taldearen eskutik. Gero, ...eta kitto!-kook antolatutako herri-milia ere egin zen hainbat urtetan, baina aspaldi ez da halakorik egin. Eta, ikusita zenbat jende dabilen antxitxiketan, Eibarrek herri-proba bat behar zuela iritzi diogu", dioskue antolatzaileek. Zapatu horretako 17.30etan hasiko den proban parte hartzeko interesatuek www.kirolprobak.com helbidean eman dezakete izena.



Aitor Hernandez txirrindulariak lehengo lepotik burua

Ziklo-kros denboraldi berria hasi eta lehenengoko proba biak bereganatu ditu Aitor Hernandez Ermuko txirrindulariak: aurreko domekan Oviedon Federazio Kopan nagusitu ondoren, oraingoan Llanesen irabazi du Debabarreneko txirrindulariak. Bere atzetik sailkatu ziren Kevin Suarez (22 segundora) eta Erlantz Uriarte: Hernandezek Medina de Pomar-en eta Villarcayon izango ditu hurrengo hitzorduak.



Kopako kanporaketan jokatu zuen Concepto Egileko taldea.

Concepto Egilek ezin izan zuen Kopako lehen kanporaketa gainditu

Aurrera egiteko aukerak izan zituen, baina Debabarreneko taldeak amore eman behar izan zuen Zierbenan Euskal Herriko talde indartsuenen artean jokaturako kanporaketan. Azken emaitzak (3-2) ez zuen islatu kantxan ikusi zena, baina zorteak eta epaileen lanak zerikusi zuzena izan zuten horretan.

Bestalde, ligako bosgarren jardunaldiko partiduan, Con-

cepto Egilekoek launa berdindu zuten Pinsequeren kantxan. Bigarren taldeak, MAQ-center-ek 3-2 galdu zuen Euskal Ligako mailan Meatzariren kantxan; jubenil askorekin aurkeztu zen Eibarko taldea eta Adrianek sartu zituen golak. Gipuzkoako kadeteen mailako Sukiak, bestalde, 5-9 irabazi zion Beasaingori eta asteburu honetan Eskoriatza hartuko du etxean.

Somos Eibarrek lidergoa sendotzeko aukera izango du bihar

Tolosa sailkapeneko bigarre-na jasoko dute eibartarrek Ipuruan (19.00) eta, horrela, hurrengo bost jardunaldietako fase garrantzitsuari ekingo diote, justu bere atzetik dauden teldeen aurkako lehiak izango baitira hor. Behin hortik irten da, jakin ahal izango da eibartarrek autoritate kolpe sendoa eman duten edo lehia gogorra izango den. Azken jardunaldian, Fernando Fernandez mutilak erraz irabazi zuten Erromon (23-30), Unai Ibaiba-



rriagaren 11 golekin. Harrobiri dagokionez, jubenil mailako Euskal Ligako Teknikerrek 18-30 irabazi zion Ereintzari Erreterian.

Bestalde, bihar eguerdian talde guztien aurkezpena egingo dute Untzagan. Aurreko domekako kaptazioak emaitza bikaina izan zuen eta, guztira, 58 neska-mutil jardungo dute alebinetan. Euren gurasoentzako bilera antolatu da martitzenerako, hilaren 22ko, 19.00etan Portalean.

402 txirrindulari V. BTT Martxan

Sekula baino partehartzaile gehiago, 402 txirrindulari batu ziren Debabarreneko V. BTT Martxan parte hartzeko. Debegesa Garapen Agentziak eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eskualdeko BTT klubun laguntzarekin antolatutako ekimenak dagoeneko bere tokia topatu du zaleen agendatan. Parte-hartzaile gehienak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak izan arren, bakar batzuk Kantabria, Asturias, Errioxa eta Madrildik ere etorri ziren probak erakarrita eta, bitxikeria moduan, Suitzako Kuttingen hiritik etorritako bizikleta zale bat ere izan zen. Aurreko edizioetan lez, ibilbide bi egon ziren aukeran, eta bietan Karakate mendia igaro behar izan zuten; gainera, Eibarko CDR bizikleta dendari



esker, asistentzia teknikorako gune bi ere jarri ziren. Proba amaitu eta gero, partehartzaile guztien artean 40 bat opari banatu zituzten zozketa bidez, eskualdeko kirol eta turismo arloko enpresei esker. Antolatzaileek boluntarioek egindako lan ikaragarria ere eskertu dute, "urtero 50 boluntariotik gora beharrean ibiltzen baitira Debabarreneko BTT Martxa arrakastatsua izan dadin".

berriak

MENDIA

Periko Iriondok "Islandia" ikus-entzunezkoa aurkeztuko du Klub Deportiboan hilaren 23an, 19.30etatik aurrera. 23 minutuko proiektioan abuztuan ateratako irudiak erakutsiko ditu, "taratean sumendiak, kraterrak, geiserrak, itsasoak eta herrietako bizitza".

FOBALLA

Domekan Mirandesen aurka 17.00etan Eibar Foball Taldeak jokatu duen partidurako talde bietako zuzendaritzek akordioa lortu dute prezioa 20 eurotan ipintzeko eta, neurri berean, prezio horri eusteko Anduvan jokatu den partidurako. Eibarko zuzendaritzak 400 sarrera bidali ditu Mirandara.

PILOTA

Profesional mailako lau eta erdiaren txapelketaren barruko bi partidu jokatu dira domekan Astelenan: Mendizabal III.ak Ezkurdia izango du aurkari eta, jarraian, Jaunarenak Idoateri egingo dio aurre.

Jokin Garcia errugbilari gazteen arduradun



Eibar Rugby Taldeak indarberrituta heldu dio denboraldi berriari eta, horrela, errugbi-totala estilo berria ezartzeko asmoa du, hasi seniorren eta emakumeen taldetik eta harrobiko guztietaraino transmitituko dena. Jokin Garcia izango du helburu horren ardura. Bestalde, Kepa Zamakolak zuzentzen duen jubenil mailako taldeak 17-7 galdu zuen Arrasaten, Igor Isasi eibartarrak zuzentzen duen hango talde seniorrarekin. Kadete, alebin eta benjamin mailakoek entrenatzen dihardute eguazten eta barixakuetan (17.30etatik 19.00ak arte)



"BIZIPOZA" lan berriarekin

Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA
urriaren **21etik 31ra** (750 euro)
...eta kitto!-n salgai: bazkide bakoitzak 3 sarrera gehienez
SALMENTA ORDUTEGIA: **10.00-14.00** eta **16.00-19.30**

GAINONTZEKOAK azaroaren **1etik** aurrera (8'00 euro)
e&m argazkidenda, El Tío Palancas eta Gozoki-n

berriro ere Eibarren

azaroak 15
BARIXAKUA
17.30
19.30

azaroak 16
ZAPATUA
16.30
19.00





MAITE ITOIZ (musikaria)

“Historian atzera bidaiatzea modukoa izango da”

Liburu Azokaren harira, gaur 19.00etan emanaldi berezia hartuko du Juan San Martin liburutegiak: Toti Martinez de Lezea idazleak hainbat testu irakurriko ditu, Maite Itoiz nafarrak zuzenean musikarekin lagunduta. Emanaldiari esker denboran atzera egiteko aukera izango dela aurreratu digu musikariak.

- Nolakoa izango da gaurko emanaldia?

Hitzaldi/kontzertua izango da eta emanaldian nobela eta musika historikoek bat egingo dute. Totik bere eleberrietako hainbat pasarte irakurri eta komentatuko ditu, berak duen komunikatzeko modu bereziari jarraituta. Eta nik testuekin denboran edo espazioan bat egiten duten piezak interpretatuko ditut. Historian atzera egindako bidaia modukoa izango da. Errenazimenduko lauda eta harpa zeltikoa aukeratu ditut, josten dudak bitartean abesteko aukera eskaintzen didatelako biek. Errepertorioan, besteak beste, Nafarroako Teobaldo I.a eta Gaztelako Alfontso X.a erregeek idatzitako pieza bi daude.

- Aurtengo udan antzerako emanaldia eskaini duzue Oliten. Nolako esperientzia izan zen?

Olitiko antzerki klasiko jaialdian antzerako emanaldia eskaini genuen eta jendearen erantzuna izugarri ona izan zen. Aretoa txiki geratu zen eta, txaloak ez zirenez geratzen, "bis"-en bat edo beste eskaini behar izan genuen. Hainbatek euren poza azaltzeko egunkarietara ere idatzi zuten, ezinezkoa da hori baino estreinaldi hobea izatea!

- Nola sortu zaizu Totiri musikarekin laguntzeko aukera?

Elkarri jarraitzen diogu biok. Toti oso aurrera egitekoa da eta, zerbait bururatzen zaionean, ez da geratzen lortu arte. Horregatik, biok elkarrekin taula gainean jarduteko aukera bazegoela ikusi zuenean, proiektua errealitate bihurtu arte ez zuen atsedenik izan. Honen aurretik antzerako beste lan batzuk egin ditut. Une honetan Bernhard Hennen, "Die Elfen" best-sellerren idazle alemaniarrekin batera biran dihardut.

- Nolakoa da "Elfenthal" oraingo ikuskizuna?

Izen berari erantzuten dioten talde independente bi hartzen ditu: taldeetako bat klasikoa da eta, bestea, balletak lagundutako opera-rock taldea. Klasikoan musika historikoan adituak diren musiko eta abeslariak daude. European oso harrera ona izan du Elfenthal taldearen opera-rockak eta Alemanian zerrendetako lehen postuan egon zen orain dela urte batzuk. Ahal bezain laster hona ekartzen ahaleginduko naiz, hurrengo show-ak euskerazko zatiak izango dituelako eta, beraz, hemen ez erakustea pena litzatekeelako.



Eva Alberdi, Asier Muniategi eta Esther Kareaga, azoka ireki zenean. SILBIA HERNANDEZ

Liburu azoka domekan itxiko da

Aurreko barixakuaz geroztik Untzagan dagoen Eibarko Liburu eta Diska Azokak domeka honetan itxiko ditu ateak. Betiko lez, literatura argitaratu diren lan berrienak erosteko aukera dago eta, gainera, %10eko deskontuarekin. Euskadiko Liburu Ganbarak udalaren laguntzarekin antolatutako azoka egunero zabaltzen dute, goizez 11.00etatik 14.00etara eta arratsaldean 17.00etatik 21.00etara (asteburuan ordu erdi gehiago). Azokaren harira, bestalde, aurreko zapatuan Jon Arretxe idazlea egon zen "612 euro" liburu sinatzen. Eta gaur musika eta literatura batuko dituen ekitaldia hartuko du Juan San Martin liburutegiak, 19.00etatik aurrera: Toti Martinez de Lezea idazleak publikoarentzat irakurtzen duen bitartean, irakurketa girotzeko Maite Itoizek musikarekin lagunduko dio.



Antzinako Eibarko argazkien erakusketa

Juan Larreategik Eibarko aintzinako argazkiekin erakusketa zabalduko du gaur 19.30etan Untzaga jubilatutako etxean. Azaroaren 3ra arte ikusgai egongo dira argazkiak, betiko orduetegiari jarraituta: astegunetan 19.15etatik 21.15etara eta zapatu, domeka eta jai-egunetan 12.00etatik 14.00etara. Eibartarrak www.juanlarreategui.com bere webgunean argazki bilduma zabala dauka ikusgai.

Jardunaldi Mikologikoak asteburuan

Klub Deportiboak antolatzen dituen Jardunaldi Mikologikoek 15. edizioa beteko dute aurtien. Perretxikoei eskainitako jarduerak bihar eta etzi egingo dira: zapatu goizean perretxikotara joango dira, talde bitan (ikastetxeetan izena eman dutenak Marieta ingurura eta Deporren izena eman dutenak, Oleta-Otxandiora). Autobusak Ego Gaietetik irtengo dira, 08.15etan. Handik bueltan, jasotako espezieak Deporrena eramango dituzte, Aran-



Aurtengo Jardunaldietako kartela.

zadi Zientzia Elkarteko en laguntzarekin aukuratu eta sailkatzeko.

Domekan, berriz, bezperan jasotako perretxikoei erakusketa egingo dute 10.00etatik aurrera Toribio Etxebarria kalean (euria bada, udaletxeko arkupeetan). Erakusketaekin batera, produktu mikologikoak salgai ipiniko dituzte eta, egitaraua biribiltzeko, perretxikodastatze bazkaria egingo da Deporren (15 euro helduendako eta 7 euro umeendako).

Norvegiari eskainitako jardunaldiak

Aurreko egunean aurkeztu zituzten udaletxean eibartarrak Norvegiako kulturara gerturatzeko asmoz udalak antolatu dituen jardunaldiak. Norvegiako literatura, argazkilaritza eta musika protagonista dituen egitaraua prestatzeko Norvegiak Bilbon duen Kongsletxea-

ren eta Norvegiako Kristina Printzesa Fundazioaren laguntza izan du udalak. Aste honetan, martitzenean ekingo zitzaizkien jardunaldiei, Juan San Martin liburutegian Lotte Katrine Tollefsen idazleak eman zuen hitzaldiarekin. Datorren astean, eguaztentean jarraituko dute egi-

tarauarekin: Juantxo Balerdi eibartarrak Norvegiari buruz egindako ikus-entzunezkoa emango dute Portalean, 19.00etan. Eta hilaren 25ean Portaleko erakusketa aretoan egingo den mahai-ingurua amaitu eta jarraian inauguratuko dute Trygve Indrelid argazkilariak Norvegiako

andrazkoei eskainitako lanen erakusketa. Ondoren, 19.30etan The Launderettes taldeak Portalean bertan (areto nagusian) "Getaway" lan berria ezagutzera emateko kontzertua emango du.



Trygve Indrelid-en erakusketa datorren barixakuan zabalduko dute.

laburrak

PINTXO LEHIAKETA

Arrate Kultur Elkartek, Merkataritzza Gune Irekiarekiaren, udalaren eta ostalarien laguntzarekin, Eibarko X. Pintxo Lehiaketa antolatu du eta tabernariak parte hartzera animatu nahi dituzte. Bakoitzak pintxo bat aurkeztu dezake, izena ipinita, eta bezeroek jateko moduan egon beharko da azaroaren 21 eta 22an, euro bat eta bi tarteko prezioan. Epaimahaikoak egun horietan pasatuko dira probatu eta puntuatzera eta San Andres egunean 150 euroko hiru sari banatuko dituzte.

BERTSO-PAPER LEHIAKETA

Azaroaren 8ra arte egongo da XIX. San Andres bertso-paper lehiaketarako lanak aurkezteko aukera. Maila bi daude: 16 urtetik beherakoek (Eibarko ikasleek) bertso bat edo 2 kopia aurkeztuko dituzte, eta 16 urtetik gorakoek, 4 puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez (asko jota 10). Lanak ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu 11, solairuarekin) entregatu beharko dira.

ANTZERKIA GAZTETXEAN

Gaur 20.00etan Kolektibo Monstrenkok "Antonio Remachado" antzezlanak aurkeztuko du gaztetxean. Sarrera doan da eta amaieran txapela pasatuko dute.



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira irasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. 943 201095 fax: 943 202564



publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net

○ Euskaraz lan egiteko gogoz

Lan mundua euskalduntzeko lanean dihardute 250 enpresak Euskal Herrian: batzuk aspalditik ari dira horretan, eta berriki sartu dira beste asko. Horretarako, euskara planak erabiltzen dituzte eta, lehenengo ekin zioten enpresa batzuetan, euskara sistematizatu egin da. beste edozein gai bezala neurtzen baitute. Lantokia euskalduntzeko bidean, lau alor banatzen dira: ezagutza, motibazioa, erabilera eta erakundetzea. Atal horiek lantzea beharrezkoa da euskararen normalizazioa lortzeko, "lan mundua euskaldundu gabe baliogabetu egiten delako irakaskuntzaren lana".

euskararen txokoa

"Guernica 1913" azaroan taularatuko da Coliseoan

Banarte Antzerki Taldeak aurreko barixakuan Matienan estreinatu zuen "Guernica 1913", Sardo Irisarri eibartarrak zuzendutako antzezlan. Konpainia bizkaitarrak urte horretako gertakariak taula gainera eramango ditu, Txato Etxanizek Gernikazarra historia taldearentzat egindako lana oinarritzat hartuta eta Rafa Herceren testuari jarraituta. Bertan kontatzen dituztenak benetan gertatu ziren, Esperanza y Unceta enpresa eibartarra Gernikara eramanean. Antzezlanak hainbaten kolaborazioa jaso du: besteak beste, Eibarko Armagintzaren Museoak damaskinatzekeo tresnak lagata lagundu du eta Abadiño Udalak ere laguntza eman die, beharrezko azpiegiturarekin. Bestalde, lana komiki eta laburmetraia esparruetara zabaltzeko asmoa dute eta, komikirako, Jose Antonio Azpilikueta marrazkilariarekin berba egin dute. Asmoa komikia euskeraz eta gazteleraz, bietara kaleratzea da eta euskerazko bertsioan euskalkie (eibarrerari eta gernikarrari eutsi


○ Euskaraz jakin beharra Renfen

Renfeko trenetako ostalaritza zerbitzuan lehiatzen diren enpresetan zerbitzariak "jario egokiarekin" hitz egin beharko dute euskaraz, eta baita katalanez eta galizieraz. Zer esanik ez, baita gaztelaniaz eta ingelesez ere. CIUK Espainiako Kongresuan egindako galdera bati erantzunez, hala ziurtatu du PP-ren gobernuak. Jatorriko edo amaierako hiria Frantzia badute, bestalde, frantsez hitz egin beharko dute: eta, Portugalen badute, portugesez. Hartutako erabakiak Bartzelona-Figueres abiadura handiko trenean zihoan katalanera hiztun baten kezari erantzuten dio.



Sagardo Eguneko irabazlea

Twitter bidez Sagardo Egunaren berri ematen lagundu ziguten guztien artean zozketa egin eta gero, aurreko barixakuan aurreratu genuen moduan irabazlea @radi0jeta, Txinan beharra egiten duen eibartarra izan da. Egunotan Eibarren dagoela aprobetxatuta, eguaztenean bulegora etorri zen saria jasotzera Twitter kontuaren gaitzizaren atzean dagoen Jon Lopez. Irabazleak pozarren hartu zituen Gorenak sagardotegietako 13 botilak eta lagunekin batera edateko asmoa zuela aurreratu zigun.



Azpilikueta marrazkilariak ere kolaboratu du Guernica 1913an.

nahi diete). Bihar Gernika-Lumon eskainiko dute antzezlan eta Eibarren azaroaren 15ean izango dugu antzezlan ikusteko aukera, Coliseoan 20.30etan.



Txokolate-dastaketa martitzenean

Datorren martitzenean, ...eta kitto! Euskara Elkarteak Illunabarrin programaren barruan antolatuta, txokolate-dastaketa egingo da elkartearen egoitzan (Urki zu, 11 solairuarte), 19.00etatik aurrera. Tolosako Rafa Gorrotxa-


tegi ezagunak txokolateari buruz jakin beharreko guztiak azalduko dizkie saioan parte hartzeko ize-na eman dutenei eta, azalpenekin batera, saiora ekarriko dituen txokoloate ezberdinak probatzeko aukera izango dute.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, EKAIN Ariznabarreta Jauregi, bixar zure lehelengo urtia egingo dozu-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, ALEJANDRA, 22xan lehelengo urtekoa egingo dozu-eta. Muxu haundi bat amama Arrate eta famelixaren partez.



Zorionak, ENEKO, bixar urtiak beteko dozuz-eta. Hamar patxo haundi, batez be Enararen partez.



Zorionak, AIORA, gure sorgintxuk gaur bi urte betetzen dituu-eta. Ondo ospatuko doguz! Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, EKHI Irisarri Alamino, atzo lau urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, PAUL Urizar Arruti, haraiñegun hiru urte egin zenduaz-eta. Famelixa guztieren partez.



Zorionak, JULEN, martitzenian lau urte egin zenduaz-eta. Segi beti bezañ alai, gure pirata. Etxekuen partez.



Zorionak, JUNE, haraiñegun 10 urte bete zenduaz-eta. Asteburuan ondo ospatu. Milla muxu famelixaren partez.



Zorionak, UNAX Gisasola Egidazu, haraiñegun sei urte egin zenduaz-eta. Famelixaren partez, maitsunez.

hildakoak

- Felipe Santiago Vega. 79 urte. 2013-X-11.
- Rosario Sanchez Perez. 99 urte. 2013-X-12.
- Rufina Carral Amorrortu. 92 urte. 2013-X-15.
- Concepcion Gonzalez Gonzalez. 91 urte. 2013-X-17.

jaiotakoak

- Aner Moreno Gomez-Simon. 2013-X-2.
- Beñat Merino Valmaseda. 2013-X-6.
- Inar Perez Gomez. 2013-X-9.



Zorionak, GORKA eta MIKEL Latorre Lasuen, zuen 8. eta 4. urtebetetzietan. Muxu haundi bat Markelen partez.

DATORREN ASTEKO ALEA EGUENEAN HURRENGO ASTEAN EZ DA EGONGO

Bi aste motz datozkigu jarraian, bieran ere barixakua jaia izango baita. Hori dela-eta, datorren astean egunean kaleratuko dugu alea, hilaren 24an; horregatik, argazkirik edo beste edozer argitaratu nahi ezker, martitzenerako bidali beharko diguzue. Hurrengo astean, bestalde, Domusantu Eguna dela-eta, ez da alerik kaleratuko.

ERREDAKZIOA

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
19an: 19.45, 22.30
20an: 17.00, 20.00
21ean: 20.30

"Mud"

Zuzendaria: Jeff Nichols



(2 ARETOAN)
19an: 19.45, 22.30
20an: 17.00, 20.00
21ean: 20.30

"La mejor oferta"

Zuzendaria: Gius. Tornatore



(ANTZOKIAN)
19an: 19.45, 22.30
20an: 20.00
21ean: 20.30

"El mayordomo"

Zuzendaria: Lee Daniels



(ANTZOKIAN)
20an: 17.00

"Zipi y Zape"

Zuzendaria: Oskar Santos



BARIXAKUA 18

ZINEA

17.30. "Monster High: Romance Monstruoso" filmaren emanaldia. El Corte Inglesean.

MUSIKA ETA LITERATURA

19.00. Toti Martinez de Lezea eta Maite Itoizen saioa. Juan San Martin liburutegian.

ANTZERKIA

20.00. "Antonio Remachado", Kolektibo Monstrenko-ren eskutik. Sarrera doan. Gaztetxean.

KONTZERTUA

20.30. Usartza Txistulari Bandaren ganbera-kontzertua. Coliseoan.

SHOPPING NIGHT

21.00/23.00. Dendak zabalik egongo dira. Kale animazioa, musika zuzenean, makillajea, benetako manikiak...

KONTZERTUA

22.00. Madeleine + DJ Danny Bilbao + DJ Mary (ex-Guass). Akats tabernan.

KONTZERTUA

23.00. Cohen vs Deaffest DJ Set + sarreren zozketa. Ez Dok tabernan.

ZAPATUA 19

JARDUN MIKOLOGIKOAK

08.15. Perretxikotara joateko autobusen irteera, Ego Ginetik. Arratsaldean jasotakoak sailkatuko dituzte, Klub Deportiboan.

GELTOKI MARKET

10.30. Geltoki Market bigarren eskuko azoka. Estaziño kalean.

TAILERRA

11.30. Halloween kalabaza. Itzamna-n (Bittor Sarasketa, 2).

TXOTXONGILOAK

17.00. "Txerriketan Berriketan", Kixka antzerki taldearekin. Coliseoan.

UMEENDAKO TAILERRA

17.30. "Mamu dibertigarria" tailerra. El Corte Inglesean.

KONTZERTUA

19.00. Diswar taldearen kontzertua. Karrikan.

DOMEKA 20

JARDUN MIKOLOGIKOAK

10.00. Perretxikoen erakusketa. T. Etxebarrian (euria balitz, udaletxeko arkupeetan). Produktuen salmenta. Bazkaria Deporren.

DANTZA

20.30. Jubilatuentzat dantzaldia. Untzaga jubilatutuetan.

MARTITZENA 22

ELKARRETRATZEA

13.00. Zerbitzu publikoetan murrizketen kontra. Untzagan.

IKASTEN

17.00 eta 18.30. Joskintza tailerra. Portalean.

TXOKOLATE-DASTAKETA

19.00. Rafa Gorrotxategi gozogilearen eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

BATZARRA

19.30. Errebal kasuaren inguruko batzar irekia, EH Bilduk deituta. Portalean (ikastaro gelan).

BILERA

20.00. Gaztetxeko jardueren inguruko kexak direla-eta, auzokoekin bilera. Karmeliten eliza aurreko parkean.

EGUAZTENA 23

IKASTEN

11.00. Kafe-tertulia: ikasturtearen aurkezpena eta solasaldietarako gaiak aukeratzea. Untzaga jubilatutuetan.

GURE BALIOAK SARIA

18.30. Aurkezpena.
18.35. Txema Cornagori omenaldia.
18.45. Hitzaldia: "Balioak: Krisiari aurre egiteko balia-bideak", Jon Leonardo Aurtenetxe Deustuko Unibertsitateko Soziologia katedradunaren eskutik.
19.15. Gure Balioak Saria banatzea.
19.30. "Musika Tantik", Teresa Albero sopranoarekin. Luntxa. Debako Agirre Jauregiko ispiulen gelan (Deban).

HITZALDIA

19.00. Iñaki Errazkin: "Autopsia de los Borbones". Arrate Kultur Elkartearen.

IKUS-ENTZUNEZKOA

19.00. Juantxo Balerdiren "Norvegia" proiektzioa. Portalean.

IKUS-ENTZUNEZKOA

19.00. Periko Iriondoren "Islandia" proiektzioa. Deporren.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres lokaletan.

EGUENA 24

IKASTEN

10.00. Zinea. Hezkuntza Esparruan.

TAILERRA

18.30. Zurumurrak argitzeko: "Zurumurrak kudeatzeko komunikazio eta emozio estrategiak", Raquel Morenoren eskutik. Portalean.

KONTZERTUA

19.00. Moby Dick taldearen kontzertua. Karrika tabernan.

IKASTEN

19.30. Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. San Andres lokaletan.

KONTZERTUA

20.30. Patricia Kraus eta Gherardo Catanzaro: "Canciones desnudas". 15 euro. Coliseoan.

MONOLOGOA

22.30. Monologo-saioa, Carola Maldonadorekin. Laurel&Hardy tabernan.

HOROSKOPOA

ARIES

Bakarrrik egoteko gogoa izango duzu. Hainbeste zaratak zoratu egin zaitu eta lasaitasun bila ibiliko zara. Zortea izan!

TAURUS

Itxaron gauzak amaitu arte, beste ezer hasi aurretik. Gauzak erdizka laga ezker, okerrago izango da: aurrerapausorik ez!

GEMINI

Une zoragarria bizi duzu. Zure begien distira barruan duzun pozaren seinale da. Ea luzerako jarraitzen duzun horrela!

CANCER

Zergatik kostatzen zaizu horrenbeste barkamena eskatzea? Harroegia zara. Akatsekin batera doa eurak onartzea.

LEO

Zerbaiten bila ibiliko zara eta baita aurkituko ere. Badakizu zer egin topatu duzun horrekin? Hori izango da zailena.

VIRGO

Askotan entzuten duzu kontu bera. Nazkatuta zaude, baina datorren astetik aurrera aholku hori eskertuko duzu.

LIBRA

Ez da sasoi ona ekonomia aldetik: ederki igitzen duzu. Nolabala moldatzen zara eta ahalegin handiak egin behar dituzu.

SCORPIUS

Hari batetik tiraka ibiliko zara eta kontu harrigarriak ezagutuko. Nolakoa den jendea! Batez ere, zure ingurukoa!

SAGITTARIUS

Zaren modukoa zara eta hori zaila da aldatzen! Gainera, zertarako? Besteak dira ulertzen ez zaituztenak: zu lasai!

CAPRICORNIUS


Bizitzak buelta asko ematen ditu eta gaur zuria dena bihar beltza izan daiteke. Ez al du, bada, bizitzak ortzadar itxura?

AQUARIUS

Goseti ibiliko zara. Bapo jan eta gose oraindik. Zergatik ote? Kilo bat edo beste hartuko duzu horrela jarraitzekotan.

PISCIS

Makal ibiliko zara egunotan. Ez da ezer larria, baina hobe duzu ondo zaintzea, gaixotasuna txarrera joan baino lehen.



erakusketak

✓ Urriaren 31ra arte

ELISABET EGURENEN margo erakusketa.
La Taberna de Luis-en (Isasi).

JOSE MIGUEL SAN JOSEREN argazkiak.
El Ambigú kafetegian.

MIKOLOGIARI buruzko argazkiak.
Klub Deportiboan.

EIBARKO ARGAZKI RALLYKO lanen erakusketa (2. zatia). *Portalea tabernan.*

✓ Azaroaren 3ra arte

JUAN LARREATEGIREN Eibarko aintzinako argazkien erakusketa. *Untzaga jubilatutuan etxean.*

✓ Urriaren 24tik azaroaren 17ra arte

INDALEZIO OJANGUREN XXVI. Argazki Lehiaketan saritutako lanen eta beste hainbat argazkiren erakusketa. *Portalean.*

lehiaketak

✓ Urriaren 27ra arte

GAZTELEKURAKO MASKOTA LEHIAKETA

Lanak aurkeztea eta informazioa:
Indianokua gaztelekuan (Muzategi, 3).

✓ Azaroaren 8ra arte

XIX. SAN ANDRES BERTSO-PAPER LEHIAKETA.

Lanak aurkeztea eta informazioa:
...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11)

farmaziak

✓ barixakua 18

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ zapatua 19

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

✓ domeka 20

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

✓ astelehena 21

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

✓ martitena 22

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

✓ eguaztena 23

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

✓ eguena 24

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ barixakua 25

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

bekak / diru-laguntzak

✓ Urriaren 31ra arte

UMEAK ESKOLARA ETA DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI

Lanak aurkeztea: *Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bulegoan (Untzaga Plaza, 7 - 3. behean). Informazioa: Pegoran.*

		4			6			
	7				5	6	8	
	2		4					5
5	8			6		1		
			5		3			
		3		9			5	8
2					8		6	
	9	5	6				1	
			1		3			

SUDOKUA

5	1	4	6	2	7	8	9	3
8	3	2	9	1	4	6	7	5
7	6	9	5	8	3	1	4	2
2	9	5	4	7	6	3	1	8
6	8	7	1	3	5	4	2	9
3	4	1	2	9	8	7	5	6
1	2	3	7	6	9	5	8	4
4	7	8	3	5	2	9	6	1
9	5	6	8	4	1	2	3	7

AURREKOAREN EMATZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldia, bi komun eta trasteroa. 130 m². Igogailua. Guztiz berritua eta argitsua. Tel. 626-203838.
- Pisia salgai Polonia Etxebarria kalean. 2 logela, egongela, sukaldia eta komun. Kanpora begira eta aukera ona. 90.000 euro. Tel. 620-099120.

1.2. Errentan

- Logela hartuko nuke alokairuan Eibar edo inguruetan. Tel. 628-872295.
- Pisia hartuko nuke alokairuan. 2-3 logelekoa. Tel. 634-170819.
- Logela alokatzen dut Bidebarrieta kalean. Tel. 618-354218.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Juan Gisasola kalean (epaitegia). 21 m². Tel. 657-779650.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Asua-errekan. Tel. 616-959625.
- Garajea alokagai Urkizuko dorreetan. Tel. 616-959625.
- Lokala alokagai Egiquirentarren plaza. Gazteentzat aproposa. Prezio onean. Deitu eguerdian. Tel. 943-701394.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko orduka. Masajista tituluairekin. Esperientzia. Tel. 632-430198.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 608-866535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita gauze ere. Tel. 671-139176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Esperientzia. Tel. 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-723264.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 660-073781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 689-798284.
- Jostuna eskaintzen da erropa edo ehunak konpondu edo egiteko. Merke. Esperientzia. Tel. 943-201180.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 659-101631.
- Mutil euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 688-819010.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 674-713262.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero edo sukaldari-laguntzaile jarduteko eta pintore moduan. Tel. 647-898016.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Orduka. Tel. 602-022174.
- Eibarko neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Tel. 656-760716.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 632-220461.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-064608.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Tel. 639-962219.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta laguntzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
- Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-302237.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 662-099453.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garaje, taberna edo igerilekuan garbiketa/mantenimendu lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 686-052084.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Erreferentziak. Tel. 669-311385.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 686-052084.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da hainbat arlotako mantenimendu lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 677-860971.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 632-956548.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-054894.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 679-946934.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 943-254903.
- Neska euskalduna eskaintzen da ile-apaindegi batean lan egiteko. 12 urteko esperientzia. Tel. 610-096417. Nerea.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Externa. Tel. 632-035709.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Interna. Tel. 662-012834.
- Neska eskaintzen da etxeak eta pegorak garbitzeko. Tel. 628-872295.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketak egiteko. 3 urteko esperientzia. Tel. 943-530679 eta 633-781038.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Etxean edo ospitalean. Tel. 686-265293.
- Mutila eskaintzen da mekanikari jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 634-851205.

4.2. Langile bila

- Garbitzaile behar da asteburuetarako Arrateko jatetxe batean. Euskalduna eta autoarekin. Bidali curriculum-a Eibarko 46 posta kutxatilara.
- Sukaldaria eta kamareroa behar dira Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a: davidtubolab@gmail.com
- Pertsona arduratsua behar da raskak, luzapenak eta postizoak egiteko Eibarko ileapaindegi batean. Giro ona. Tel. 678-674250.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Ingeleseko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketa ofizialezko prestakuntza. Tel. 652-763264.
- Arte Ederretan lizentziatutako neska euskaldunak marrazketa eta margolaritza klaseak ematen ditu. Baita 1. eta 2. Hezkuntzako errefortzu-klaseak ere. Tel. 696-747532.
- Mutil euskaldun tituludunak ingelesezko partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Merke. Tel. 690-025579.
- Arkitekto euskalduna eskaintzen da DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasgai tekniko-zientifikoak emateko. Esperientzia. Tel. 615-704540.
- Ekonomiketan lizentziatua eskaintzen da Matematikak, Kontabilitatea eta Finantza-Matematiketako partikularrak emateko. Tel. 657-771496.
- Ingeniaritza tituludunak klase partikularrak ematen ditu. LHtik Batxilergora arte, Heziketa Zikloak eta unibertsitatekoak. Talde txikiak. Tel. 669-622642. Mireia.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. Tel. 685-739709.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestaketa. EOI. Tel. 670-793312.
- Azken kurtsoko Pedagogiako ikasle euskalduna eskaintzen da klase partikularrak eta ikasketa-teknikak emateko. Tel. 676894791.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Sofa poli-piel salgai, plaza bikoa. Oin-azpiko etzangariarekin. Tel. 943-043008.
- 15 hilabeteko ume batendako pase-orako aulkitxo erosi edo hartuko nuke. Tel. 685-755526.- Aspes NA 383CS garbigailua salgai. Goiko karga, 5 kg. eta 800 r.p.m. Erabili gabe. 80 euro. Tel. 652-730323.
- Bugaboo markako aulkia erendako patinetea erosi nuke. Tel. 666-769414.
- Zuhaitz itxurako zintzilikario dekoratiboa salgai. Prezioa adosteko. Tel. 660-840246.
- Idazmahai salgai. Poliplas silla, mahai-gaineko lanpara eta osagarriekin. Erabili gabe. Merke. Tel. 943-120308.

6.4. Bestelakoak

- Taxi-lizentzia salgai. Ibilgailu eta bezero-karterarekin. Atenditzeko modurik ez izateagatik. Tel. 630-884181.

Kultö:

Zuloagatarren, 3
Tel. 943 20 84 39



Xarma bereziarekin!



Eskerrik asko
GUZTIOI!!!




20 urte ia eibartarren zerbitzura



Koktelaren erreinuan

- Kultu mojitoa
- Marrubi mojitoa
- Tekila Sunrise
- Sedukzioa
- Anana iragazia
- Bellini
- Love in the beach
- Margarita



Juan Gisasola, 6an duzu zure ileapaindegia



Vintage

Estilistak

astlehenean **09.30-13.30**
astartetik ostiralera **09.30-18.00**
larunbatean **08.30-13.30**



943 056 056 673 378 873



Etorri hitzordurik hartu gabe!!!

ENTZUMEN ZENTRO BERRIA EIBARREN



Anton Martinena
GOI TEKNIKARI
AUDIO-PROTESISTA

AUDIOLOGIA PROFESIONALA

PERTSONETAN INSPIRATUTAKO ZERBITZUAK

Audiocentro-etan ez dugu bezeroekin tratatzen: pertsoneri eskaintzen diegu zerbitzua. Horregatik, gure zerbitzuak zure beharretan inspiratuta daude. Zure ongizaterako abantaila-multzo zabala.

IKERKETA AUDIOLOGIKO PROFESIONALAK

- Azterketa **otoskopikoarekin**, entzunbidean eta tinpano-mintzean egon daitezkeen arazoak antzematen ditugu.
- **Miaketa audiometrikoek** zure premia audiologikoak zehazten dituzte, entzumeneko maila minimoak eta hipoakusia-motak aztertuz.
- **Ahozko audiometriaren** bitartez, ahozko lengoaia eskuratzeko duzun gaitasuna eta hitzaren pertzepzio-ataria zehaztu ahal izango ditugu.
- **Tinpanometriarekin** erreflexu estapediala, eta tinpano-mintzak eta erdiko belarriaren egoera aztertuko ditugu.

AUDIFONOAK

SOLUZIO IKUSEZINAK SENTSAZIO HANDIENTZAKO

Aprobetxa itzazu zure zentzumenak erosotasun handiarekin. Teknologia digital berriari esker, egokitzapen zehatz eta trazarik gabeko audifonoak izango dituzu. Audifono bat dago entzumen-galera maila bakoitzerako. Audiocentro-etan zure beharrak aztertuko ditugu soluzio pertsonala eman ahal izateko.




Intraurikularra Retroaurikularra Intrakanala Lotune sakoneko audifonoa

ENTZUMEN-BABESLEAK

BABESTU ZURE ZENTZUMENAK

AUDIOCENTROren ABANTAILAK

- **Aldizkako entzumen-kontrola.** Bisita gaitzazu gutxienez urtean behin zure entzumen-osasuna ebaluatzeko.
- **Zure neurrira egindako finantzazioa.** Audifonoak eta gailuak epe erosotan eta interesik gabe ordain ditzakezu.
- Higienea ezinbestekoa da belarrientzat. Horregatik, **urtean birritan garbituko dizkizugu moldeak, doan.**
- **Bost urtera arteko garantia** duzu, eta **puntako etxeekin** egiten dugu lan.
- **Lehen bi urteetan pilak doan** izango dituzu, eta gainera, gure zentro guztietan jasotzen ditugu pilak.



ZARATATIK BABESTEKO TAPIOIAK



URETARAKO TAPIOIAK